

Donostia, 2024ko urtarrilaren 18a

## 08/24 PRENTSA OHARRA

### IBILBIDE ETA GELTOKI ALDAKETAK AUZOETAN DANBORRADAK DIRELA ETA

Auzoetako danborradak eta jaiak direla eta, **urtarrilaren 19an eta 20an** ondorengo geltoki eta ibilbide aldaketak egingo dira Dbusen zerbitzuetan:

#### **Osteguna, urtarrilaren 19a**

##### ➤ 14-BIDEBIETA LINEA

Bidebieta itxita egongo da **14:45etik 16:15era** gutxi gorabehera. Zerbitzuek Juan XXIII-en emango dute bira.

Zerbitzurik gabe geratuko dira Bidebietako Anbulategia, Julio Urkijo 38 eta Serapio Mujika 29 geltokiak. **Juan XXIII (Kiroldegia) geltokira** lekualdatuko dira.

##### ➤ 5-BENTA BERRI LINEA

Matia kalea itxita egongo da **18:30etik aurrera**, beraz zerbitzuek Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetatik igaroko dira.

Bertan-behera geratuko dira Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32 eta Zarautz 90 eta Zarautz 122 geltokiak. **Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetara** lekualdatuko dira.

#### **Ostirala, urtarrilaren 20a**

##### ➤ 5-BENTA BERRI LINEA

Matia kalea itxita egongo da **egun osoan zehar**, beraz zerbitzuak Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetatik igaroko dira.

Bertan-behera geratuko dira Matia, Benta Berri R.M. Azkue, R.M. Azkue 32 eta Zarautz 90 eta Zarautz 122 geltokiak. **Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetara** lekualdatuko dira.

##### ➤ 14-BIDEBIETA LINEA

Bidebieta itxita egongo da **11:15etik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara** gutxi gorabehera. Zerbitzuek Juan XXIII-en emango dute bira.

Zerbitzurik gabe geratuko dira Bidebietako Anbulategia, Julio Urkijo 38 eta Serapio Mujika 29 geltokiak. **Juan XXIII (Kiroldegia) geltokira** lekualdatuko dira.

➤ **9-EGIA-INTXAURRONDO LINEA**

**16:00etatik 22:30era** gutxi gorabehera ez da joango Egia kaletik, Karmengo Amatik eta Ametzagainatik, beraz geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. **Lotura zerbitzua egongo da Santa Katalina Zubia eta Mandasko Dukearen artean.** Gainera, 9-Egia-Intxaurrondo lineak honako ibilbide hau egingo du:

- Egia-Intxaurrondo alderantz, geldialdi hauek egingo ditu: Santa Catalina Zubia, Pinudi, Euskal Herria, Jaialai, Fernando Sasiain, Galizia 18, Galizia 28, Bustintxulo eta Baratzategi 21.

- Erdialderantz, geldialdi hauek egingo ditu: Baratzategi 21, Txara II, Zarategi 71, Mons 77, Kotxerak CTSS, Arbos Musikaria, Ategorrieta 31, Galtzada Nagusia 21, Kolon eta Santa Katalina Zubia

➤ **13-ALTZA-BUENAVISTA LINEA**

**18:30etik 21:30era** gutxi gorabehera, Txirrita Bertsolariaren kalea itxita egongo da. Ibilbidea Buenavista, Altzako kaskoa eta Martillunetik egingo da.

Txirrita Bertsolaria-ko geltokiak bertan-behera geratuko dira. **Aitz Gain eta Larratxo geltokietara** lekualdatuko dira hurrenez hurren.

Informazio gehiago [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) webgunean eta 900840146 telefono zenbakian.

